

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Akats-zuzenketa, 2025eko urriaren 15eko ALHAOn (117. zenbakia) argitaratutako 2025/2958 iragarkian, zeina deskarbonizazio-proiektuak garatzeko 2025eko laguntza-programaren deialdiaren oinarriak aldatzeari buruzkoa baita

Akats bat aurkitu da 2025eko urriaren 15eko (asteazkena) ALHAOn (117. zenbakia) argitaratutako 2025-2958 iragarkian. Iragarki hori deskarbonizazio-proiektuak garatzeko 2025eko laguntza-programaren deialdiaren oinarriak aldatzeari buruzkoa da. Hori dela eta, honako akats-zuzenketa hau argitaratzen da:

Honela dioen lekuan:

Kontuan hartuta ez dela amaitu eskabideak aurkezteko epea – urriaren 25erako aurreikusitakoa (egun hori barne)– eta ez dela hasi eskabideak baloratzeko prozedura, batzordekideetako bat aldatzeak ez du garrantzirik hirugarrenen aurrean, ez baitu eskubide subjektiborik eragin. Horrenbestez, oinarri hori aldatu eta zuzenketa udalaren webgunean eta ALHAOn bertan argitaratu behar da.

Honela behar du:

Kontuan hartuta ez dela amaitu eskabideak aurkezteko epea —urriaren 15erako aurreikusitakoa, egun hori barne— eta ez dela hasi eskabideak baloratzeko prozedura, batzordekideetako bat aldatzeak ez du garrantzirik hirugarrenen aurrean, ez baitu eskubide subjektiborik eragin. Horrenbestez, oinarri hori aldatu eta zuzenketa udalaren webgunean eta ALHAOn bertan argitaratu behar da.

Herritar oro jakinaren gainean egon dadin ematen da argitara.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko urriaren 15ean

Administrazio Zerbitzuko burua

JOSEBA ANDONI GARCÍA-ARDANAZ ARDANAZ